Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko urriaren 23a, ostirala — 203 — Viernes, a 23 de octubre de 2026

BERGARAKO UDALA

Bergarako kultur sorkuntzarako bekaren deialdia 2026ko ekitaldia. BDNS (identif.): 934610.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/934610).

Alkateak 2026ko urriaren 9an emandako dekretu baten bitartez Bergarako kultur sorkuntzarako bekaren deialdia (2026. ekitaldia) onartu da eta honen bidez argitaratzen da:

XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Deialdi honen helburua da «Arrizuriagako Sorkuntza Beka» eskatzeko eta emateko prozedura arautzea, sortzaile berrien kultur sorkuntzak bultzatzeko.

Kultur sorkuntza bezala ulertzen da artistaren imajinaziotik eratorritako ondorengo edozein lan: musika, pintura edo eskultura lanak, literatura obrak, antzerki obrak, komikiak, soinu konposizioak, ikus-entzunezko lanak, konposizio digitalak, dantza koreografiak etab.

Beka honen helburua da sortzaile berriei beraien obra sortzeko laguntza ekonomikoa ematea eta lekua eskaintzea: Arrizuriaga Kulturgunea.

2. artikulua. Ezargarri den araudia.

Dirulaguntza hauek ematerakoan, eta onuraduna eta erakunde emailea elkarrekin lotuko dituen harreman juridikoa finkatzerakoan, oinarri hauek eta dirulaguntzak ematen direnean indarrean den araudia bete beharko da:

— Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

— 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

— Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

— Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2025-2027.

— 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

3. artikulua. Onuradunak.

Beka hau, kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek lor dezakete. Halaber, taldeka ere aurkez daiteke, betiere izaera juridikorik gabeko norbanakoen taldea edota talde kulturalak badira.

Horretaz gain, eskatzaileak edota taldekideek nahitaez egiaztatu beharko dute dirulaguntza eskatzeko datan 16 urteko adina beteta izatea.

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

Convocatoria de beca de creación cultural de Bergara ejercicio 2026. BDNS (identif.): 934610.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/934610).

Mediante decreto de Alcaldía de 9 de octubre de 2026 se ha aprobado la convocatoria de beca de creación cultural de Bergara (ejercicio 2026), por lo que se procede a su publicación:

OBJETO

Artículo 1. Objeto.

Constituye objeto de la presente convocatoria la regulación del procedimiento de solicitud y concesión de la «beca de creación de Arrizuriaga» para impulsar creaciones culturales de personas que sean nuevas creadoras.

Se entiende por creación cultural cualquiera de las siguientes obras derivadas de la imaginación de la persona artista: obras de música, pintura o escultura, obras literarias, de teatro, cine, cómic, composiciones sonoras, obras audiovisuales, composiciones digitales, coreografías de danza, etc.

La beca tiene como finalidad ofrecer a las personas nuevas creadoras una ayuda económica y un emplazamiento, el centro cultural Arrizuriaga, para la creación de su propia obra.

Artículo 2. Normativa aplicable.

La concesión de estas subvenciones, así como el establecimiento de la relación jurídica que vincula a la persona beneficiaria con la entidad concedente, se ajustará a las presentes bases y a la normativa vigente en el momento de la concesión de las ayudas:

— Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Bergara.

— Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Bergara 2025-2027.

— Ley 39/2015, de 1 octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 3. Personas beneficiarias.

Podrán optar a esta beca las personas físicas que ejerzan o deseen iniciarse en algún ámbito cultural. Así mismo, podrán presentarse en grupo, siempre que se trate de grupos de individuos o agrupaciones culturales sin personalidad jurídica.

Además, la persona solicitante o en su caso los miembros de la agrupación deberán acreditar obligatoriamente tener cumplidos 16 años de edad a la fecha de solicitud de la subvención.

EK\CV GAO-I-2026-06712

ESKAERAK

4. artikulua. Baztertuak.

Balioespen Batzordeak eskumena izango du, kasuz kasu, dirulaguntza eskaera bat deialditik kanpo uzteko, betiere honako irizpideak kontuan izanik eta behar bezala arrazoitu ondoren.

Baztertuak izango dira, espreski:

1. Udaleko beste dirulaguntza batzuk jasotzen dituzten edo udalarekin hitzarmenen bat duten elkarteak.

2. Era zuzenean edo zeharka indarkeria bultzatzen duten edota indarkeria motaren bati apologia egiten dioten proiektuak. Halaber, zuzenean edo zeharka giza eskubideak urratzen dituen edozein proposamen.

3. Taularatu, argitaratu edo jendaurrean aurkeztutako proiektuak.

4. Deialdi honetako 1. artikuluarekin bat, kultur sorkuntzak ez diren proiektu edo lanak.

Era berean, modu orokorrean deialdi honen bidez lagunduko diren ekintzetatik kanpo geratuko dira honako jarduerak:

— Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzetako Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean sartuak daudenak.

— Bere izaera eta helburuengatik beste udal arlo edo erakunde autonomoren baten programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, horrelakoetan, dagokion erakunde edo udal arlora bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

5. artikulua. Eskabideak aurkeztea.

Laguntza hau jaso nahi dutenek deialdian zehaztutako ereduaren araberako eskabide-eredu ofiziala bete eta aurkeztu beharko dute. Eskaerak bi modutan aurkez daitezke:

— Bergarako Udaleko Erregistro Nagusian (B@Z arreta zerbitzuan) aurkeztuko dira, edo 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan aurreikusitako bitartekoetatik edozein erabiliz.

— Elektronikoki: eskabideak aurkezteko, Udalaren egoitza elektronikora jo beharko da, haren web-orriaren bidez.

Balioespen Batzordeak proiektu bat baino gehiago finantzatuko duela erabaki dezake, betiere puntuazio altuena duen proiektua laguntzaren aurrekontua (5.000 euro) baino txikiagoa den kasuetan.

Eskaera-orriarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

— Inprimaki normalizatua.

— Eskatzailearen eta/edo ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia. Taldeen kasuan, taldekideen izen-abizenen zerrenda eta bakoitzak taldean izango duen rol edo papera. Dirulaguntzaren eraginetarako, ordezkari bat izendatu beharko da.

— Taldeen kasuan ordezkaritza agiria sinatu beharko duten taldekide guztiek (F0136A inprimakia). Dokumentu hori talde kide guztiek eta ordezkariak sinatuta egon beharko da.

— Kontu korrontearen titularitatea egiaztatuko duen agiria.

— Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren gaineko memoria teknikoa. Memoria teknikoak proiektuaren inguruko informazioa jasoko du, bestek beste: proiektuaren azalpena, sorkuntza-prozesua, kronograma, plazaratzeko proposamena, beharrezko baliabide materialak zein giza baliabideak edota balorazio irizpideen

SOLICITUDES

Artículo 4. Exclusiones.

La Comisión de Valoración tendrá competencia, caso por caso, para excluir de la convocatoria una solicitud de subvención, atendiendo siempre a los siguientes criterios y previa motivación.

Serán excluidas expresamente:

1. Las asociaciones que reciban otras subvenciones municipales o tengan algún tipo de convenio con el ayuntamiento.

2. Los proyectos que directa o indirectamente inciten a la violencia o hagan apología de algún modo de ella. Así mismo, cualquier propuesta que directa o indirectamente vulnere los derechos humanos.

3. Proyectos que hayan sido representados, publicados o presentados en público.

4. Conforme al artículo 1. de la presente convocatoria, los proyectos o trabajos que no sean creaciones culturales.

Asimismo quedarán excluidas de las acciones a subvencionar mediante la presente convocatoria, con carácter general, las siguientes actividades:

— Las incluidas en alguno de los supuestos contemplados en los artículos 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Aquellas que, por su naturaleza y objetivos, hubieran de ser canalizadas a través de uno o varios programas de otras áreas municipales u organismos autónomos. No obstante, en estos casos, la solicitud será remitida al área municipal u organismo que corresponda, dando cuenta de ello a la persona interesada.

Artículo 5. Presentación de solicitudes.

Quienes deseen optar a esta ayuda deberán cumplimentar y presentar el modelo oficial de solicitud conforme al modelo establecido en la convocatoria. Las solicitudes pueden presentarse de dos modos:

— Se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Bergara (en el servicio de atención del B@Z) o mediante cualquiera de los medios contemplados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015.

— Electrónicamente: Las solicitudes se presentarán a través de la sede electrónica del ayuntamiento, mediante su página web.

La Comisión de Valoración podrá acordar la financiación de más de un proyecto, en caso de que el proyecto con mayor puntuación sea inferior al presupuesto de la ayuda (5.000 euros).

Junto con el impreso de solicitud, deberán presentarse los documentos siguientes:

— Impreso normalizado.

— Copia del documento de identidad de la persona solicitante y/o su representante. En el caso de las agrupaciones, relación nominal de sus miembros y el rol o papel que desempeñará cada uno de ellos en el grupo. A efectos de la subvención, se deberá designar a una persona como representante.

— En el caso de los grupos, todos sus miembros deberán firmar el documento de representación (impreso F0136A). Este documento deberá estar firmado por todos los miembros del grupo y por su representante.

— Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta corriente.

— Memoria técnica del proyecto para el que se solicita la ayuda económica. La memoria técnica contendrá la información relativa al proyecto; entre otras cuestiones: exposición del proyecto, proceso de creación, cronograma, propuesta de presentación/representación, recursos materiales y personales necesarios... o

EK\CV GAO-I-2026-06712

arabera baloratzeko beharrezkoak irizten direnak. Memoria teknikoa 15 orrialdekoa izango da gehienez. Ez dira zenbatuko portada eta aurkibidea.

— Giza baliabideen gastuen kasuan, dedikazioen kronograma xehatua.

— Curriculum Vitae-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa. Taldeen kasuan, taldekide bakoitzaren eta taldearen ibilbidea azalduko duen dokumentua aurkeztu beharko da (taldearen sorrera, egindako emanaldi zein bestelako ekoizpen kulturalak...).

— Adimen artifizialaren erabileraren inguruko erantzukizunpeko deklarazioa.

Eskatutako dokumentu guztien txantiloiak Bergarako Udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri daude.

Eskariak aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla esan nahi du.

6. artikulua. Eskariak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 21 egun naturalekoa izango da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

7. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, eskatzaileei hamar lan-eguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eskaera zein hari dagozkion agiriak osatu edo zuzentzeko. Ez da inola ere aukerarik izango memoria teknikoa aldatzeko.

Emandako epea amaitutakoan akats horiek konpondu gabe baleude, eskaera bertan behera utzi dutela ulertuko da.

BEKA EMATEA

8. artikulua. Aurrekontua eta dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntza hauek Bergarako Udalaren aurrekontu propiotik finantzatuko dira. Programa honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru-kopurua gehienez 5.000 eurokoa da eta ondorengo diru-partidatik finantzatuko da: 1 3310.481.334.04.00 2026 (B.K. 2571).

Diru kopuru hori (5.000 euro) eman daitekeen gehienekoa da. Bekaren hartzailea, printzipioz, bakarra izango da. Hala ere, Balioespen Batzordeak hala erabakita, onuradun gehiago aitortu ditzake, betiere balorazio-prozesuan jasotako puntuazio-hurrenkerari jarraituz.

Oinarri hauetako 14. artikuluarekin bat, diruz lagunduko da kostu materiala (material, ekipo zein bestelako ondasunen erosketa; zerbitzuen kontratazioa; alokairu zein bestelako gastuak...) eta giza baliabideei dagokien kostua. Giza baliabideei dagokien kostua kronograma batean jaso beharko da, egileak aurreikusten duen ordu kopurua eta balizko egutegia zehaztuta.

Edozein kasutan, dirulaguntzaren zenbatekoa (kostu materiala eta giza baliabideei dagokiena) inolaz ere ez da izango –hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publikoek edo beste Erakunde publiko eta pribatuek emaniko laguntza edo dirulaguntza batekin batuta– onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua eta giza baliabideen dagokion gastuei dagokiona baino handiagoa.

9. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea.

Programa honen kontura emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 60 ebazpena onartzean, eta gainerakoa sorkuntza-lana amaitu, aurkeztu eta justifikatzeko dokumentazioa aurkezten denean.

aquellos aspectos que se considere que deban ser valorados conforme a los criterios de valoración. La memoria técnica ocupará como máximo 15 páginas, sin contar portada e índice.

— En relación con los gastos de recursos humanos, cronograma detallado de dedicaciones.

— Curriculum Vitae, acotado a la experiencia profesional en el ámbito cultural. En el caso de las agrupaciones, se deberá presentar un documento explicativo de la trayectoria del grupo y de cada uno de sus componentes (creación de la agrupación, actuaciones u otras producciones culturales realizadas...).

— Declaración responsable sobre el uso de la inteligencia artificial.

Las plantillas de todos los documentos solicitados están disponibles en la sede electrónica del Ayuntamiento de Bergara.

La presentación de las solicitudes implica la aceptación total de las condiciones establecidas en la presente convocatoria.

Artículo 6. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes será de 21 días naturales, a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Artículo 7. Subsanación de errores.

Si la solicitud o la documentación adjunta adoleciera de algún defecto o se encontrase incompleta, a las personas solicitantes se les concederá un plazo de diez días hábiles (computados a partir del día siguiente al de la recepción de la comunicación) a fin de que subsanen o completen la solicitud o la documentación correspondiente. En ningún caso podrá modificarse la memoria técnica.

Transcurrido el plazo concedido, si los defectos no han sido subsanados, se entenderá que han desistido de su petición.

CONCESIÓN DE LA BECA

Artículo 8. Presupuesto y cuantía de las subvenciones.

Estas subvenciones se financiarán con cargo al presupuesto propio del Ayuntamiento de Bergara. La dotación económica máxima destinada a las subvenciones objeto de este programa es de 5.000 euros y se financiará con cargo a la partida 1 3310. 481.334.04.00 2026 (B.K. 2571).

Dicha cuantía (5.000 euros) es lo máximo que se puede conceder. La persona receptora de la beca será, en principio, única. No obstante, la Comisión de Valoración podrá acordar el reconocimiento de más creaciones beneficiarias, siguiendo el orden de puntuación recogido en el proceso de valoración.

De acuerdo con el artículo 14 de estas bases, se subvencionará el coste material (adquisición de materiales, equipos y otros bienes; contratación de servicios; gastos de alquiler y otros) y el coste correspondiente a recursos humanos. El coste correspondiente a los recursos humanos deberá recogerse en un cronograma con el posible calendario y el número de horas que prevea la persona autora.

En todo caso, el importe de la subvención (el coste material y el correspondiente a recursos humanos) en ningún caso podrá superar –ni por sí mismo ni en concurrencia con otras ayudas o subvenciones concedidas por otras Administraciones Públicas u organismos públicos o privados– el coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria y el gasto en recursos humanos.

Artículo 9. Abono de la subvención.

Las subvenciones concedidas con cargo a este programa se abonarán en dos pagos: el 60 % a la aprobación de la resolución, y el resto a la presentación de la documentación acreditativa de la finalización, presentación y justificación del trabajo de creación.

EK\CV GAO-I-2026-06712

Emandako dirulaguntza bankuko transferentzia bitartez ordainduko da, pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean. Taldeko onuradunaren kasuan, kontu-korronte bakarrean egingo da ordainketa, taldeko ordezkariak adierazitako kontu korronte zenbakian.

10. artikulua. Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak helburu berarekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateragarriak izango dira, betiere gain-finantziaziorik ez balego. Hala, onuradunak aurkeztutako beste dirulaguntzen berri eman beharko dio Bergarako Udalari.

PROZEDURA

11. artikulua. Balorazio irizpideak.

Aurkeztutako proiektuak baloratzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

— Proiektuaren interesgarritasuna, publiko berriak sortzeko edo inplikatzeko gaitasuna, sormen prozesua Arrizuriagan garatzea, Bergararentzat duen garrantzia (kulturala, historikoa, artistikoa...), kalitatea, izaera berritzailea eta sortzailea: 35 puntu arte.

— Proiektuaren azalpenaren egokitasuna eta zehaztasuna: 10 puntu arte.

— Proiektu berean kultur diziplina bat baino gehiago erabiltzea: 5 puntu arte.

— Bestelako eragile sozial zein kulturalekin sinergiak planteatzea: 5 puntu arte.

— Genero ikuspegia txertatzea, bai sorkuntza-lanaren emaitzan bai ekoizpen edo sorkuntza prozesuan. Halaber, artista edo artista talde horrek diziplina jakin horretan generoen errepresentazioarekin apurtzea ere aintzat hartu dezake Balioespen Batzordeak: 5 puntu arte.

Beka puntuaziorik altuena lortzen duenari emango zaio, eta gutxienez 35 puntu lortu beharko dira (kontuan hartuta 8. artikuluan xedatutakoa). Hala, Balioespen Batzordeak deialdia bete gabe utzi ahal izango du, baldin eta irizten badio proposamen batek ere ez duela behar adinako interesik edo kalitaterik lortu.

12. artikulua. Prozedura.

Gauzatzea eta proposamena.

1. Kultura Saileko talde teknikoari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen kudeaketa lanak aurrera eramatea, baita bitartekari lanak eta beka hartzailearekin harremana izatea ere.

2. Eskaerak kide anitzeko Balioespen Batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu. Honako kide hauek osatuko dute (gutxienez emakumez osatuta egongo da % 50ean):

— Kultura Zerbitzuko arduraduna, edo berak izendatutako ordezkaria. Bera izango da Balioespen Batzordeko lehendakaria.

— Arrizuriagako kultur teknikari laguntzailea.

— Berdintasun teknikaria, edo berak izendatutako ordezkaria.

— Zerbitzu Orokorretako eta Kontratazioko Administrazio Orokorreko teknikaria, balorazioaren bideragarritasun juridikoaz eta taldearen idazkaritzaz arduratuko dena.

Era berean, batzorde horrek egoki ikusiz gero, gaian aditu direnen parte hartzea edo iritzia eskatu ahal izango du.

Balioespen Batzordeak ebazpen-proposamena egingo du. Berdinketa kasuan, Balioespen Batzordeko lehendakariak izango du kalitate botoa.

El pago de la subvención concedida se realizará mediante transferencia bancaria en la cuenta corriente que indique la persona beneficiaria. Si la beneficiaria es una agrupación, el pago se realizará en una única cuenta corriente, aquella cuyo número haya indicado la persona representante de la agrupación.

Artículo 10. Compatibilidad con otras ayudas económicas.

Las subvenciones concedidas de acuerdo con estas bases serán compatibles con otras ayudas económicas concedidas para el mismo fin, siempre que no exista sobrefinanciación. En este sentido, la persona o agrupación beneficiaria deberá dar cuenta al Ayuntamiento de Bergara del resto de subvenciones presentadas.

PROCEDIMIENTO

Artículo 11. Criterios de valoración.

Los criterios que se utilizarán para la valoración de los proyectos presentados serán los siguientes:

— Interés del proyecto, capacidad de generar o implicar a nuevos públicos, desarrollo del proceso creativo en Arrizuriaga, importancia para Bergara (cultural, histórica, artística...), calidad, carácter innovador y creativo: hasta 35 puntos.

— Idoneidad y precisión de la exposición del proyecto: hasta 10 puntos.

— Utilización de más de una disciplina cultural en un mismo proyecto: hasta 5 puntos.

— Plantear sinergias con otros agentes sociales o culturales: hasta 5 puntos.

— Integrar la perspectiva de género, tanto en el resultado de la obra creativa como en el proceso de producción o creación. Asimismo, la Comisión de Valoración podrá tomar en cuenta la disrupción de la representación de los géneros en esa disciplina concreta por parte de la persona o agrupación de artistas: hasta 5 puntos.

La beca se concederá a quien obtenga mayor puntuación, con un mínimo de 35 puntos (teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 8), de modo que la Comisión de Valoración podrá declarar desierta la convocatoria si considera que ninguna de las propuestas ha obtenido el grado de interés o calidad suficiente.

Artículo 12. Procedimiento.

Ejecución y propuesta.

1. Corresponde al equipo técnico del Departamento de Cultura el desarrollo de las tareas de gestión de las subvenciones contempladas en la presente convocatoria, así como las tareas de mediación y la relación con la persona o agrupación receptora de la beca.

2. Las solicitudes serán analizadas y evaluadas por una Comisión de Valoración colegiada, que estará compuesta por los siguientes miembros (con un 50 % de mujeres como mínimo):

— Responsable del Servicio de Cultura, o la persona suplente que designe. Esta será quien asuma la presidencia de la Comisión de Valoración.

— Técnico/a auxiliar cultural de Arrizuriaga.

— Técnica de Igualdad, o la persona suplente que designe.

— Técnica de Administración General de Servicios Generales y Contratación, encargada de la viabilidad jurídica de la valoración y de la secretaría del equipo.

Asímismo, esta comisión podrá recabar, si lo estima oportuno, la participación o el dictamen de personas expertas en la materia.

La Comisión de Valoración elaborará la propuesta de resolución. En caso de empate, se dirimirá por el voto de calidad de la presidencia de la Comisión de Valoración.

EK\CV GAO-I-2026-06712

3. Dirulaguntzen ebazpen proposamena organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebazpena eman dezan. Bertan zehaztuko da dirulaguntza zein eskatzaileri ematea erabaki den eta zenbatekoa den. Ebazpenaren berri emango da, 39/2015 Legeko 45. artikuluaren eraginetarako, www.bergara.eus webgunean, zehazki Kultur Zerbitzuari dagokion atalean.

DIRULAGUNTZEN KONTROLA

13. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Emandako dirulaguntza justifikatzeko, erakunde onuradunek Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 8. artikuluan adierazitako betebehar orokorrak bete beharko dituzte. Halaber, onuradunak hau bete beharko du:

— Dirulaguntza ematea oinarritzen duen sorkuntza-lana egin eta baldintzak bete.

— Diruz lagundutako sorkuntza-lana aurrera eramateko behar diren baimen guztiak eskuratu, eta horietan ezarritakoa bete.

— Proiektua 8 hilabeteko epean amaitu –bekaren onuradunari jakinarazpena egiten zaionetik kontatzen hasita–. Onuradunak diruz lagundu den bere lana jendaurrean euskaraz aurkeztuko du. Aurkezpen horretarako eguna Balioespen Batzordearen eta onuradunaren artean zehaztuko da.

— Diruz lagundutako sorkuntza-lana aurrera eramateko garaian sortzen diren hondakinak modu egokian kudeatu; hau da, gaika sailkatu eta horretarako aurreikusita dauden guneetan edota edukiontzietan utzi.

— Entitate laguntza-emaileak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jarri.

— Jasotako dirulaguntza itzuli beharko du onuradunak baldin eta laguntza hori emateko ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, edota jasotako diru-kopurua gauzatu duen jardueraren kostua baino handiagoa bada.

— Espedientea izapidetzen ari den departamentuak, Udalaren Kontuhartzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudunen batek eskatutako informazioa eman.

— Udalak proiektuaren jarraipena egiteko ezarritako kontrol-mekanismoei erantzun (entrega puntualak, bilerak...).

— Parte-hartzaileak izango dira deialdi honen esparruan aurkezten dituzten proiektuen originaltasunaren eta egile izatearen erantzuleak. Aurkeztutako sorkuntza-lanaren jabego intelektualari buruzko erreklamaziorik balego, proiektua aurkeztu duen pertsona izango da horren erantzule.

— Deialdira aurkeztutako proiektua beste deialdi batzuetara aurkeztu ahalko izango da (lehiaketak, jaialdiak etab.) betiere Bergarako Udalaren irudi korporatiboaren elementuak erabiliz eta Bergarako Udalari aurrez horren berri emanez.

— Onuradunek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako proiektua herritarren eta hedabideen artean ahalik eta gehien zabaltzeko. Proiektuaren zabalkundean, Bergarako Udaleko logoa ikusgai jarri beharko da euskarri guztietan eta leku nabari batean. Zabalkundean Udal Komunikazio Zerbitzuarekin eta Kultura Zerbitzuarekin koordinatu beharko da.

— Diruz lagundutako proiektuak komunikatzeko, erakusteko edota irabazi asmorik gabe erabiltzeko eskubidea izango du Bergarako Udalak.

3. La propuesta de resolución de las subvenciones será elevada al órgano competente para su resolución. En ella se indicará quién es la persona o agrupación solicitante a quien se ha resuelto conceder la subvención, así como la cuantía de la misma. Se dará cuenta de la resolución, a efectos del artículo 45 de la Ley 39/2015, en la página web www.bergara.eus, concretamente en el apartado correspondiente al Servicio de Cultura.

CONTROL DE SUBVENCIONES

Artículo 13. Obligaciones de las personas o agrupaciones beneficiarias.

Para la justificación de la ayuda concedida, las entidades beneficiarias deberán cumplir las obligaciones señaladas con carácter general en el artículo 8 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Bergara. Además, la persona o agrupación beneficiaria deberá cumplir lo siguiente:

— Realizar la obra creativa que fundamenta la concesión de la subvención y cumplir los requisitos.

— Obtener todas las autorizaciones necesarias para llevar a cabo la obra de creación subvencionada y cumplir con lo establecido en las mismas.

— Finalizar el proyecto en el plazo de 8 meses, a partir de la notificación de la beca a la persona beneficiaria. La obra subvencionada la deberá presentar en público la persona beneficiaria en euskera. La fecha de dicha presentación se acordará entre la Comisión de Valoración y la persona beneficiaria.

— Gestionar adecuadamente los residuos generados en el desarrollo de la obra creativa subvencionada, clasificándolos selectivamente y depositándolos en las zonas y/o contenedores previstos al efecto.

— No obstaculizar las actuaciones de comprobación a realizar por la entidad que concede la ayuda.

— La beneficiaria deberá reintegrar la subvención percibida en caso de incumplir las condiciones establecidas para su concesión o cuando la cuantía percibida sea superior al coste de la actividad realizada.

— Facilitar la información que le sea requerida por el departamento que tramita el expediente, por la interventora municipal, por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas o por otro órgano competente.

— Responder a los mecanismos de control establecidos por el Ayuntamiento para el seguimiento del proyecto (entregas puntuales, reuniones...).

— Las personas participantes serán las responsables de la originalidad y autoría de los proyectos presentados en el marco de esta convocatoria. Si hubiera reclamaciones sobre la propiedad intelectual de la obra, la responsable será la persona que la haya presentado.

— El proyecto presentado a la convocatoria podrá presentarse a otras convocatorias (concursos, festivales, etc.) utilizando siempre los elementos de la imagen corporativa del Ayuntamiento de Bergara y comunicándolo al Ayuntamiento de Bergara.

— Las personas beneficiarias se comprometen a difundir el proyecto subvencionado al máximo entre la ciudadanía y los medios de comunicación. En la difusión del proyecto, el logo del Ayuntamiento de Bergara deberá quedar expuesto en todos los soportes y en un lugar destacado. De cara a la difusión, deberá coordinarse con el Servicio Municipal de Comunicación y con el Servicio de Cultura.

— El Ayuntamiento de Bergara tendrá derecho a comunicar, exponer y/o utilizar (sin ánimo de lucro) los proyectos subvencionados.

EK\CV GAO-I-2026-06712

— Onuradunak baimena ematen dio udalari bere irudiak (diruz lagundutako proiekturen baitan hartutakoak) erabiltzeko informazioa zabaldu edo sustapen-jarduerak egiteko.

— Proiektua amaitutakoan sorkuntza-lanaren kopia bat, dagokion euskarri fisiko edo digitalean, Udalari eman. Udalak egokitzat hartzen dituen kanalen bidez zabaldu eta ezagutzera eman dezake, betiere lanaren egiletza aitortuta eta etekin ekonomikorik lortzeko asmorik gabe.

— Eskatzaileak Bergarako Udalarekiko, ogasunarekiko eta gizarte segurantzarekiko gastuetan egunean egon beharko du.

14. artikulua. Diruz laguntzeko gastuak.

Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastuak dira diruz lagunduko den sorkuntza-lanaren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, eta berariazko oinarri erregulatzaileetan ezarritako epean egiten direnak: kostu materiala (material, ekipo zein bestelako ondasunen erosketa; zerbitzuen kontratazioa; alokairu zein bestelako gastuak...) eta giza baliabideei dagokien kostua.

Diruz lagundutako elementuen erosketa kostuak ezin dezake inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

15. artikulua. Justifikazioa.

Modu orokorrean, oinarri hauen xede diren dirulaguntzak justifikatzeko, ondorengo egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Jarduketa memoria, dirulaguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena, zer jarduera egin diren eta zer emaitza lortu diren adierazita.

b) Justifikazio-kontu bat, jasoko dituena, alde batetik, proiektuaren garapenean zehar egindako lan intelektual eta materiala –gastutzat hartuko da justifikazio-ondorioetarako– eta, bestetik, hala badagokio, jardueraren beste gastu eta inbertsio batzuen zerrenda, honako hauek adierazita: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Lan intelektuala eta materiala justifikatzean, egindako dedikazioen kronograma xehatua jaso beharko da, bai eta, hala badagokio, hasieran aurkeztutako kronogramarekiko desbideratzeak ere, behar bezala arrazoituta eta justifikatuta.

Dirulaguntza aurrekontu baten arabera eman bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa.

e) Agiriak aurkezteko epea: Zerrendatutako agiriak aurkeztu beharko dira onuradunak proiektua plazaratu eta hilabeteko epean.

Deialdian dirulaguntza egiaztatzeko ezarritako epea igarota onuradunak ez baldin badu aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztu, Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoa izango da aplikagarri. Hau da, egin beharreko justifikazioa edota txostena zehaztutako epean ez aurkezteak automatikoki ekarriko du dirulaguntza ezestea, edota jasotako diru-kopurua itzuli beharra.

ARGITARA EMATEA

16. artikulua. Informazioa argitaratzea.

Emandako dirulaguntzen zerrenda, onuradunen izen-abizenekin eta emandako kopuruekin, Bergarako Udalaren webgunean eta iragarki-oholean argitaratuko da.

— La persona o agrupación beneficiaria autoriza al ayuntamiento la utilización de sus imágenes (tomadas en el marco de este proyecto), a fin de difundir información o realizar actividades de promoción.

— Al finalizar el proyecto, entregar al Ayuntamiento una copia de la obra creativa –en el soporte físico o digital correspondiente– que el ayuntamiento podrá difundir y dar a conocer a través de los canales que considere oportunos, reconociendo siempre la autoría de la obra y sin ánimo de lucro.

— El solicitante deberá estar al corriente de los gastos con el Ayuntamiento de Bergara, hacienda y seguridad social.

Artículo 14. Gastos subvencionables.

A los efectos de la presente convocatoria, se considerarán gastos subvencionables aquellos que afecten de forma inequívoca a la naturaleza de la obra creativa subvencionable y que se realicen en el plazo establecido en las bases reguladoras específicas: coste material (compra de materiales, equipos u otros bienes; contratación de servicios; gastos de alquiler y otros...) y coste en recursos humanos.

El coste de adquisición de los elementos subvencionados nunca podrá ser superior a su valor de mercado.

Artículo 15. Justificación.

Con carácter general, la justificación de las subvenciones objeto de estas bases se realizará mediante la presentación de los siguientes documentos acreditativos:

a) Memoria de actuación que acredite el cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una cuenta justificativa que contenga, por un lado, el trabajo intelectual y material realizado durante el desarrollo del proyecto, que tendrá la consideración de gasto a efectos de justificación, y, por otro lado, si procede, la relación de otros gastos e inversiones de la actividad, con indicación del acreedor y documento, importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. La justificación del trabajo intelectual y material deberá incluir un cronograma detallado de las dedicaciones realizadas, así como, en su caso, las desviaciones respecto al cronograma inicialmente presentado, debidamente motivadas y justificadas.

En caso de que la subvención se conceda en función de un presupuesto, se indicará la desviación que haya habido.

c) Relación detallada de otros ingresos o ayudas económicas que hayan financiado la actuación subvencionada, con indicación de su importe y procedencia.

d) Documentación gráfica o audiovisual que sirva de comprobación y testimonio del trabajo realizado.

e) Plazo para la presentación de la documentación: La documentación relacionada se deberá presentar en el plazo de un mes desde la presentación/representación del proyecto por parte de la persona beneficiaria.

Transcurrido el plazo establecido en la convocatoria para la justificación de la subvención sin que la persona beneficiaria haya presentado la documentación señalada en el apartado anterior, será de aplicación lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Bergara. Es decir, la falta de presentación de la justificación o informe en el plazo establecido dará lugar automáticamente a la denegación de la subvención o a la obligación de reintegrar la cantidad percibida.

PUBLICACIÓN

Artículo 16. Publicación de la información.

La relación de subvenciones concedidas, con los nombres y apellidos de los beneficiarios y las cantidades concedidas, se publicará en la página web y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Bergara.

EK\CV GAO-I-2026-06712

Dirulaguntzen datuak ez dira argitaratuko baldin eta dirulaguntzen argitaratze hori pertsona fisikoen ohorearen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean, eta dirulaguntza hori arautzen duten oinarrietan horrela jasota dagoenean.

OINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA HELEGITEAK

17. artikulua. Oinarrien interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantza Udalak erabakiko du. Deialdi honetako 2. atalean zehaztutako arauak izango dira interpretazioen oinarri.

18. artikulua. Helegiteak.

Oinarri hauen aurka berraztertzeko helegitea jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, betiere, oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bergara, 2026ko urriaren 9a.—Gorka Artola Alberdi, alkatea. (6712)

No se publicarán los datos relativos a las subvenciones cuando su publicación sea contraria al respeto y protección del honor y a la intimidad personal y familiar de las personas físicas y así conste en las bases reguladoras de la subvención.

INTERPRETACIÓN DE LAS BASES Y RECURSOS

Artículo 17. Interpretación de las bases.

Cualquier cuestión que pueda surgir en relación con la interpretación de estas bases será resuelta por el ayuntamiento. Las interpretaciones se harán en base a las normas establecidas en el apartado 2 de la presente convocatoria.

Artículo 18. Recursos.

Contra estas bases podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o bien recurrir directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses; computándose los plazos a partir del día siguiente al de la publicación de las bases.

Bergara, a 9 de octubre de 2026.—El alcalde, Gorka Artola Alberdi. (6712)

EK\CV GAO-I-2026-06712